

IRAKASKUNTZA-GIDA

2012/13

Ikastegia 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl. 1. zikloa

Plana TRABA102 - Gizarte Langintzan diplomatua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

16012 - Gizarte-Lanerako Praktiak II

ECTS kredituak: 8,71

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

HELBURU OROKORRA:

- Ikasleak errealitate sozialaren ezagutza aplikatura eta fenomeno eta arazo sozial desberdinetara hurbiltzea, gizarte langintzaren alorretik.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Errealitate soziala eta fenomeno eta arazo sozialen errealitate soziala ezagutzea: diziplina bakoitzaren espezifikotasuna identifikatzen jakitea.
- Gizarte langileek populazio-sektore desberdinetan egiten duten lan profesionala ezagutzea: ogibidearen espezifikotasuna identifikatzen jakitea.
- Arazo sozialen analisia egitea denborazko eta lekuzko ikuspegitik: testuinguruan jartzen jakitea.

GAI ZERRENDAA

Populazio-sektore nagusien ezagutza aplikatua izatea, sektore horietan lan egiten duten gizarte langintzako profesionalen bidez eta esparru akademiko zein profesionalaren ikuspegia kontuan hartuta:

- Familia, haurrak eta gazteak.
- Adineko pertsonak.
- Gizarteak baztertuak izateko arriskuan dauden edo jadanik baztertuta dauden pertsonak.
- Gaixotasun kronikoak eta/edo ezintasunen bat (fisikoa, psikikoa eta/edo sentzoriala) dituzten pertsonak.
- Etorrinak.
- Etnia-taldeak.
- Mendekotasunen bat jasan edo bizi duten pertsonak.
- Emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten pertsonak.
- Espetxeratuak.

Oharra. Irakasgai honetan populazio-sektore guztiak aztertuko dira; horrez gain, zeharka, generoaren ikuspegia, landa-mundua, garapenerako lankidetzak, etab. ere landuko dira.

Teoriazko edukia honakoetan sakonduz osatuko da: komunikazio-gaitasuna (ahozkoa eta idatzizkoa), talde-lanerako gaitasuna eta ezagutza eskuratzeko baliabideak (Praktiak I delakoaren edukiak indartu eta horiei jarraipena emango zaie).

Eskumen eta gaitasun sozial berriak ere landuko dira: enpatia, asertibitatea, desberdintasunen onarpena, konpromiso etikoa, arrazonamendu kritikoa, arazoaren konponketa, gatazken gestioa, etab.

METODOLOGIA

Gai-zerrendan adierazitako biztanle-sektoreak lehenengo mailan landu dira alde zuzenetik; beraz, ikasturte honetan lanketa horri jarraipena emango zaio, eta ezagutzaren aplikazioan aurrerapausoak emango dira. Horretarako, Eskolara etorriko diren profesionalen laguntza izango dugu; profesional horiek beren eguneroko lanaren nondik norakoak azalduko dizkiete ikasleei. Hitzaldiak 9 eskola-egunetan izango dira. Zuzendaritzak hitzaldiak antolatuko ditu.

Lanerako irakasle bakoitzak bere metodologia badu ere, gutxienez arau batzuk ezarri dira. Hala, irakasgaiaren helburuak lortzeko, bi lan ildo jorratuko dira:

1. Profesionalen hitzaldiak:

- Hitzaldia: Profesionalak bere azalpena egingo du; ondoren, argibideetarako eta eztabaidarako tartea izango da.
- Ikasgelako lana: Ikasleek hitzaldian aztertutako gaiari/sektoreari buruzko aurkezpena prestatuko dute.

2. Trebetasunak eta Gizarte Langintzan erabilitako teknikak

Zehazki esateko, hitzaldian jorratutako gaiei loturiko 9 ariketa egingo dira, ondoren proposatzen den eskemari jarraituz (gutxi gorabehera 5 orri idatzi beharko dira).

- Testuingurua (sektorea, arazoa...)
- Antolakuntza (zerbitzua, elkartea, bitarteko eskuragarriak)
- Gizarte langilearen eginkizunak.
- Balorazioa

Gainera, ikasle bakoitzak azken txosten bat aurkeztuko du, balorazioa eta ondorioak jasoko dituen.

Bigarren lauhilekoan 3. mailarako praktika-tokiak aukeratuko dira Praktiken Zuzendariordetzarekin batera.

Guzti horretarako, honakoak erabiliko dira:

- Profesionalek gelan emango dituzten hitzaldiak.
- Talde-lanak klasean bertan.
- Banakako jarraipena.
- Lanen aurkezpena
- Banakako idatzizko lana.

Argibideak:

EBALUAZIOA

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

Irakasgaia ebaluatzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Parte-hartzea eta ikasgelan egindako lana (%50)
 - Hainbat lan idatziren aurkezpena (%50)
 - Hitzaldiari eta ondorengo azalpenari loturiko ariketak.
 - Banakako azken txostena, balorazioa eta ondorioak jasoko dituen.
 - Praktiketara joatea derrigorrezkoa da. Saioren %20ra ez joatea ¿ez aurkeztu¿ bezala hartuko da kontuan.
 - Ez da aurrekusi praktikak bertaratu gabe egiteko modurik.
 - Irakasgaia balioesteko irizpideak honakoak dira:
 - Klasean parte hartzea eta klasea aprobetxatzea.
 - Klaseko ariketak eta idatzizko lana.
- Oharra. Azken nota jaso ahal izateko, aurreko bi irizpideak gainditu behar dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

-

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak